

TXOSTENA 2015

hegoa

laburpena

Bertsio osoa, hemen:
www.hegoa.ehu.eus

1. aurkezpena

Memoria honetan, Hegoak 2015. urtean egindako jarduera nagusiak jasotzen dira, haren lan-arlo guztietan. Jarduera azpimarragarrietako bat unibertsitateko irakaskuntza-lana da. Unibertsitatean, gure hiru masterrek oraindik eskari handia dute. Bik titulu ofiziala dute, eta besteak, berriz, berezko on-line titulua. Eskaintza horri *Tokiko Giza Garapena: Oinarriak proposamen alternatibo baterako MOOC* Ikastaroa gehitu behar zaio, bai eta *Globalizazioan, Lankidetzan eta Gizarte-mugimenduetan espezializatutako Ikastaroaren IV*. Edizioa, eta, kasu honetan, Bolivian, *Unibertsitateko Diplomaduna Ekonomia Solidarioan eta Komunitarioan* diplomaturaren II. Edizioa ere, La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés Unibertsitateko Garapeneko Zientzien Graduondorekin (CIDES). Esan behar da Hegoa institutuko langileek eta irakasleek beste autonomia-erkidego batzuetan eta beste herrialde batzuetan irakasle-lanetan jardun dutela graduondoko ikastaro ugarietan.

Zenbait jardunaldi eta eztabaida-gune antolatu dira, besteak beste, Ha-Joon Changen hitzaldia Kapuscinski Development Lectures saioan, eta mintegi-ziklo bat ekonomia sozial eta solidarioari buruz, REAS Euskadirekin batera. Mintegi horietan, tokiko politika publikoak jorratu dira, bai eta ekonomia feministarekin duten lotura eta Andeetako eskualdeko esperientziak ere. 2015. urteko beste jarduera azpimarragarri bat UPV/EHUren *Giza Eskubideen eta Justizia Trantsizionalaren Nazioarteko Topaketa Mendebaldeko Saharan* Udako Ikastaroa izan da, Donostian irailean egindakoa. Jarduera horiez gain, Hegoako kideek beste erakunde batzuek antolatutako ikastaro, tailer edo hitzaldi ugarietan parte hartu dute.

Ikerketaren alorrean, Hegoak koordinatutako Garapenari buruzko Ikasketen Doktoretza programa, *Bikaintasunerako Aipua* duena, indartzen jarraitu da, bi doktoretza-tesi defendatu baitira eta hamar tesi berri egiteko izena eman baita. Institutuko ikerketatalsek, horrez gainera, argitalpen ugari egin dituzte, liburuak nahiz artikulua.

Garapenerako Hezkuntzaren alorrean, azpimarratu behar da *Garapenerako Hezkuntza: 2005-2014 aldiaren egoerari, bilakaerari eta joerei buruzko azterketa* txostena egin dela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eskatuta.

Gure Dokumentazio Zentroari dagokionez, atseginez egiaztatu dugu gure Liburutegi Digitalak indartzen jarraitzen duela, Nazioarteko Garapenean eta Lankidetzan espezializatutako gaztelaniazko datu-base nagusi gisa. On-line baliabideen kontsultak etengabe ugartzea lagungarria izan da liburutegia indartzeko, pixkanaka-pixkanaka urtean milioi bat izatera iristen ari baitira, eta horien ia erdia Latinoamerikakoa da.

Hegoak zenbait erakunderi aholkularitza-zerbitzuak ematen ere jarraitu du, hala nola, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta Eibar, Irun eta Ordiziako udalei. Vitoria-Gasteizko Udalaren *Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea, 2016-2019* egiteko partaidetza-saioen dinamizazioa egiten lagundu da. Era berean, zenbait proiektu ezartzen jarraitu da, eta *Boliviako La Pazeko udalerrietan emakumeen eskubide ekonomikoak eta ekonomia solidarioko politikak sendotzea* programa abiarazi da.

Horiek izan dira egindako zeregin nagusietako batzuk, eta, horrez gainera, zenbait aldizkaritako argitaletxe-kontseiluetan parte hartu da, zenbait saretan ere esku hartu da, bai eta jarduera ekonomiko eta gizarte-jarduera ugarietan ere. Orrialde hauetan, jarduera horiei buruzko informazioa zabalduko dugu.

Karlos Pérez de Armiño
Hegoako zuzendaria

2. prestakuntza- eta hezkuntza-jarduerak

Hegoaren garapenerako prestakuntza- eta hezkuntza-jarduera irakaskuntza-mota desberdinen bidez egiten da. Alde batetik, Doktoretza Programaren bidez –Hezkuntza Ministerioak 2011. urtean emandako *Bikaintasunerako Aipua* du–, master ofizialen bidez –*Garapena eta Nazioarteko Lankidetz*a eta *Globalizazioa eta Garapena*– eta on-line Tituluaren bidez. Azken titulu horri dagokionez, 2014-2015 ikasturtean, *Garapenerako lankidetzarako estrategiak, agenteak eta politikak* masterra amaitu zen, eta, haren ordez, 2015-2016 ikasturtean, *Nazioarteko Lankidetz*a eta *Hezkuntza askatzailea* master berria ezarri.

Bestalde, Hegoa Institutua osatzen dugunok Espainiako, Europako eta Latinoamerikako zenbait unibertsitatetan emandako graduondoko ikastaro ugaritan (doktoretzak, maisutzak, espezializazioak eta diplomatuak) izandako parte-hartzearen bidez ere egiten da. Beste unibertsitate batzuek, GGKE batzuek eta erakunde batzuek eskatuta emandako ikastaroen, hitzaldien, tailerren eta mintegien bidez osatzen da jarduera hori.

Hezkuntzaren esparruan, VSF-Justicia Alimentaria Global (VSF-Munduko Elikadura Justizia) elkartearekin partzuergoan, *Elikadurarako eta Garapen Iraunkorrerako eskubiderako espazioak zabalduz genero-ikuspuntuarekin, hezkuntza formaleko esparru guztietan* proiektua sustatu da. 4 urteko hitzarmena da (2015-2018), AECIDek finantzatua, eta Katalunian, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan eta Euskadin garatzen da aldi berean.

Unibertsitateko irakaskuntzaren esparruan, *Tokiko Giza Garapena. Proposamen alternatibo baterako oinarriak* MOOC ikastaroa (*Massive Open Online Course*) eman da, UPV-EHUko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan; *Ekonomia Solidario eta Komunitarioan Unibertsitateko Diplomatuen II. Edizioa*, Garapenerako Zientziak graduondoarekin La Pazeko Universidad Mayor de San Andrés

unibertsitatean, eta *Globalizazioan, Lankidetzan eta Gizarte Mugimenduetan Espezializatutako Ikastaroaren IV. edizioa*, zenbait herrialdeetako erakundeen eta gizarte-mugimenduen partaidetzarekin.

Hegoak, Red Española de Estudios del Desarrollo (Garapenerako Ikasketen Espainiako Sarea) sarearekin batera, Ha-Joon Changen *Bringing Production Back into Development* hitzaldia antolatu zuen Kapuscinski Development Lectures saioan (Europako Batzordea-PNUD).

Era berean, Hegoak, REAS Euskadirekin batera, hauek antolatu ditu: *Tokiko politika publikoak gizarte-ekonomiarako eta ekonomia solidarioa* mintegia; Bilbon, Donostian eta Arrasaten egindako *Latinoamerikako esperientzia oinarri hartuta, Ekonomia solidarioari eta Ekonomia feministari* buruzko mintegiak; eta Bilbo, Donostia eta Gasteizen egindako *Elkarrekin ikasteko topaketak: ekonomia sozial solidarioaren eta emakumeen eskubide ekonomikoaren inguruko esperientziak. Bolivia, Ekuador, Peru eta Euskadi*.

Bukatzeko, 2015. urtean, EHNE Bizkaiarekin lan egin da *Baserritik mundura: gure elikaduraren etorkizuna jokoan* elikadura-subiranotasunari eta agroekologiari buruzko ikastaro berria prestatzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, 2016ko urtarrilean has dadin.

3. ikerketa-jarduerak

Ikerketa-jarduera zenbait talderen eta ikerketa-ildoren bidez lantzen da, eta Hegoa Institutuari atxikitako irakasleek eta ikertzaileek hartzen dute parte, bai eta lan-kontratupeko langileek ere.

Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak (Eusko Jaurlaritzako talde finkatua). Garapenari buruzko ikasketak eta bakeari eta gatazkei buruzko ikasketak uztartzen lan egiten du, batez ere. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile nagusia), Eduardo Bidaurratzaga, Alfonso Dubois, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Alba Linares, Irantzu Mendia, Itziar Mujika, Juankar Pérez de Mendiguren, Unai Villalba, Patxi Zabalo eta Iker Zirion.

Tokiko Giza Garapena. Araudi-erreferentziatzat hartzen du Giza Garapena, eta tokiko eta lurraldeko hedadura, ebaluazio-espazio gisa. Taldekideak: Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, Eflen Areskurrinaga, Eduardo Bidaurratzaga, Maite Fernández-Villa, Luis Guridi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Carlos Puig, Unai Villalba eta Mikel Zurbano.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa. 2015. urtean, Bolivian ekonomia sozial eta solidarioa aztertzen jardun du, batez ere. Taldekideak: CIDES UMSAko Fernanda Wanderley, Fernanda Sostres eta Ivonne Farah, eta Hegoako Luis Guridi, Yolanda Jubeto eta Carlos Puig.

Gatazkak, bakea eta garapena. Giza segurtasunaren, bake-erakuntzaren eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren kontzeptuen analisia. Taldekideak: Karlos Pérez de Armiño, Alba Linares, Irantzu Mendia, Itziar Mujika eta Iker Zirion.

Feminismoak eta gatazkak. Giza Eskubideei aplikatutako ikerketa feministaren metodologiari buruzko prestakuntza eta ikerketen sustapena, erakunde feministekin eta giza eskubideen alde lan egiten duten erakundeekin lankidetzan. Taldekideak: Irantzu Mendia, Gloria Guzmán eta Iker Zirion. Laguntzaileak: Arantza Chacón, Lidia Ruiz eta María Viadero.

Mendebaldeko Saharako giza eskubideei buruzko ikerketa. Biktimen egiazko egoera babesteko tresnak sortzeko eta giza

eskubideen alde lan egiten duten Saharako instituzioen eta erakundeen gaitasunak indartzen laguntzeko. Taldekideak: Carlos Martín Beristain, Sergio Campo, Gloria Guzmán eta Irantzu Mendia Azkue. Laguntzaileak: Francisco Etxeberria, Lourdes Herrasti eta Almudena García-Rubio (hirurak Aranzadi Zientzia Elkarteak), Arantza Chacón, Eloísa González, Antonio Martínez eta Alejandro Valencia.

Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politikak (Eusko Jaurlaritzako talde finkatua). Garapenari eta garapenerako lankidetzak politikei buruzko eztabaidetan izandako aldaketen azterketa. Taldekideak: Koldo Unceta (ikertzaile nagusia), Yesica Álvarez, Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villena eta Idoye Zabala.

Lankidetzak kritikoa eta gizarte-mugimenduak. Hiru ikerketa-ardatz ditu: solidaritate internazionalista; jakintzen aniztasuna eta prestakuntza politiko askatzailea; eta elikadura-subiranotasuna eta agroekologia. Taldekideak eta laguntzaileak: Jokin Alberdi, Davide Angelilli, Eflen Areskurrinaga, Beatriz Casado, Gema Celorio, Nerea Eizagirre, Gonzalo Fernández, Javier García, Yenifer García, Javier González, Michal Haramati, Itziar Hernández, Juan Hernández, Xarles Iturbe, Yolanda Jubeto, Berta Malvárez, Zesar Martínez, Silvia Piris, Amaia del Río, Janaina Stronzake, Judite Stronzake, Luis Miguel Uharte eta Unai Vázquez.


PIU-Hegoa Garapen Ikasketak. 2015. urtean, Hegoa Institutuak koordinatutako Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak lanean jarraitu du. Gezki Institutuak eta hiru ikerketa-talde finkok osatzen dute unitatea: Garapen eta Lankidetzak Politikei buruzko Ikerketa Taldeak; Giza Segurtasunari, Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldeak; eta Civersityk.

Doktoretza-tesiak. 2015. urtean bi doktoretza-tesi irakurri dira, eta Hegoaren (UPV/EHU) *Garapenerako Ikasketak* doktoretzan, 2015eko abenduaren 31n, hogeit hamar doktoretza-tesi zeuden matrikulatuta.

4. irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak

Gaur egun, Dokumentazio Zentroak 20.000 erregistro baino gehiago ditu Liburutegi Digitalean. 1988. urtetik metatu du ondare hori Hegoak, eta gaur egunera arteko garapenari eta lankidetzari buruzko eztabaida nagusiak daude jasota bertan. Dokumentu Zentroa izateari eta erabiltzeari esker, Institutuko irakasleek eta ikertzaileek nahiz eragile sozialek eta, oro har, publikoak aurrera egin dute Garapenerako Lankidetzako lanean eta politiketan.

Azken hamarkadan, Dokumentazio Zentroko zerbitzuak aldatu egin dira, eta Zentroa informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietara egokitu da. 2015. urtean, azpimarragarria da Liburutegi Digitaleko on-line irakurketen banaketa: 911.981 PDF-deskarga. Beraz, deskargak %16,7 ugaritu dira.



Liburutegi digitala: 2006 (6.950); 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036); 2013 (711.398); 2014 (781.354) **+%9,8**; 2015 (911.981) **+%16,7** **Bantaba:** 2011 (294.967); 2012 (391.828); 2013 (331.578); 2014 (277.828) **-%19,3**; 2015 (251.163) **-%10** **DHL ataria:** 2011 (267.083); 2012 (270.538); 2013 (474.564); 2014 (417.938) **-%13,5**; 2015 (463.936) **+%11** **Hegoa argitalpenak / webgunea:** 2011 uria-abendua (16.356); 2012 (67.043); 2013 (144.758); 2014 (196.426) **+%26,4**; 2015 (274.036) **+%39,5** **Cdoc buletinak:** 2011 (13.709); 2012 (12.073); 2013 (5.589); 2014 (11.417) **+%104**; 2015 (14.658) **+%28,3** **Multimedia-edukia:** 2012 (81); 2013 (2.250); 2014 (2.928) **+%23,2**; 2015 (8.584) **+%193,1**

5. aholkularitza, laguntza tekniko eta lankidetzeta-programak

Aholkularitza erakunde, aldundi eta udalei. Bizkaiko Foru Aldundiarekin laguntza teknikoko zenbait zerbitzu eman dira 2015. urtean, erakunde horrekin sinatutako hitzarmenaren baitan. Hitzarmen hori 10 urtez baino gehiagoz berritu da. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu zen, Aldundi horren lankidetzeta-politika Garapen Iraunkorreko Helburuen egoera berrira egokitzeko eta Aldundi horretako Lankidetzeta Zuzendaritzari lan-agendako zenbait alderditan aholkuak emateko. Euskadiko udalekin egindako lanari dagokionez, Eibarko, Irungo eta Ordiziako udalen 2015eko lankidetzeta-deialdiarako aholkularitza-lanak egin dira. Vitoria-Gasteizeko Udalak Hegoarekin partaidetzeta-saioen dinamizazio-zerbitzua kontratatu zuen, *Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea, 2016-2019* egiteko.

Garapenerako Hezkuntzari buruzko azterketa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Hegoako Hezkuntza taldeari, Amaia del Riori eta Gema Celoriori txosten hau egiteko agindu zien: *Garapenerako Hezkuntza: 2005-2014 aldirako egoerari, bilakaerari eta joerei buruzko azterketa.*

Estrategia-herrialdea formulatzeko, sendotzeko eta indartzeko hitzarmena, lehenetasunezko herrialdeetan euskal lankidetzeta planifikatzeko eta eratzeko tresna gisa. 2015eko ekainean amaitu zen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Hegoaren arteko hitzarmena. Azken seihilekoan, Guatemalan mugimendu feministaren eta nekazarien eta indigenen mugimenduaren bat-egitea sendotzen jardun dute batez ere.

PGM 2010BA/002 PESS programa. *Ekonomia-proposamen eraldatzaileak Andeetako eskualdean: tokiko ekonomiaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko garapenaren arteko loturak. Ekuador.* 2015eko abenduan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako programa hau amaitu da, eta programa horren emaitza nagusietako bat Loja probintzian

(Ekuador) *Produktu agroekologikoen ekoizpen, zirkulazio eta kontsumo solidarioa sustatzeko ordenantza-proposamena* abian jartzea izan da.

DFG 2013-LANK-46 proiektua. *Ekonomia sozial eta solidarioko eragileak eta mugimenduak sendotzea Ekuadorreko hegoaldeko eskualdean.* 2015ean amaitu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektu hau. Proiektu honetan, emakumeak buru dituzten ekonomia-ekimenak sendotu dira, eta zirkuitu ekonomiko eta solidarioa eratu.

PGM 2012BA/013 AndESS programa. *Andeetako eskualdeko Ekonomia Solidarioko Mugimenduak sendotzea, emakumeen ekonomia-eskubideak azpimarratuz. Bolivia, Ekuador eta Peru.* 2013. urtean abiatutako programa hau lantzen jarraitu da 2015. urtean, eta, horretarako, ekintzak egin dira Bolivian, Ekuadorren, Perun eta Euskadin, garapenerako ikerketa- eta hezkuntza-osagaiak oinarri hartuta, eta La Pazeko udalerrietan emakumeen elkarteek sustatutako ekoizpen-ekimenak babestuz.

PGM 2015BA/010 programa. *Boliviako La Pazeko udalerrietan emakumeen eskubide ekonomikoak eta ekonomia solidarioko politikak sendotzea.* Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2015eko ekitaldian onartu zuen programa hau, eta hiru osagai azpimarratzen ditu: ekonomia- eta gizarte-eskubideen alde egiten duten elkarteak sendotzea; unibertsitatea, tokiko garapenean prestakuntzarako eta eraldaketarako gizarte-eragile gisa; eta ekonomia sozial eta solidarioko politika publikoak eta emakumeen ekonomia-eskubideak ezartzeko erakunde publikoak sendotzea.

6. erakunde organigrama

Hegoa Institutuko Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Karlos PÉREZ DE ARMIÑO **Idazkaria:** Jorge GUTIÉRREZ
Kideak: Yesica ÁLVAREZ, Iratxe AMIANO, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Marisa LAMAS, Zesar MARTÍNEZ, Irantzu MENDIA, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Almudena SAINZ.

Hegoa Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

(Herri-onurako elkartearen izendatua. EHAA, 165. zk., 2003ko abuztuaren 26a)

Batzordeburua: María Victoria LAMAS **Batzordeburuordea:** Luis GURIDI **Idazkaria:** Eduardo BIDAURRATZAGA **Diruzaina:** Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN

Hegoa Institutuari atxikitako irakasleak

Xabier AIERDI, Jokin ALBERDI, Iratxe AMIANO, Eflen ARESKURRINAGA, Xabier BARRUTIA, Roberto BERMEJO, Eduardo BIDAURRATZAGA, M^a Luz de la CAL, Juanjo CELORIO, Marian DíEZ, Alfonso DUBOIS, Artizar ERAUSKIN, Iker ETXANO, Mikel de la FUENTE, Xabi GAINZA, Luis GURIDI, Jorge GUTIÉRREZ, Juan HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, David HOYOS, Pedro IBARRA, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, Imanol MADARIAGA, Eduardo MALAGÓN, Mari José MARTÍNEZ, Zesar MARTÍNEZ, Elena MARTÍNEZ TOLA, Irantzu MENDIA, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Víctor POZAS, Uri RUIZ BIKANDI, Joseba Andoni SAINZ DE MURIETA, Bob SUTCLIFFE, Luis Miguel UHARTE, Koldo UNCETA, Unai VILLALBA, Idoye ZABALA, Patxi ZABALO, Iker ZIRION, Imanol ZUBERO, Luis M^a ZUPIRIA.

Talde teknikoak

Koordinatzaile nagusia: Maite FERNÁNDEZ-VILLA **Prestakuntza eta dokumentazioa:** Iñaki GANDARIASBEITIA, Itziar HERNÁNDEZ, Marisa LAMAS **Ikerketa:** Amaia DEL RÍO, Gloria GUZMÁN **Hezkuntza:** Gema CELORIO, Alicia LÓPEZ DE MUNAIN **Aholkularitza eta**

Kontsultoretza: Iñigo ALDEKOZEA, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Tatiana MONTENEGRO, Carlos PUIG, Michel SABALZA **Administrazioa eta Finantzak:** Joana DEL OLMO, Pilar JURADO, Almudena SAINZ, Txaro URIARTE (PAS) **Kontratututako langile ikertzaileak:** Beatriz CASADO **Prestakuntzaren arloko langile ikertzaileak:** Yesica ÁLVAREZ, Alba LINARES, Julia MARTÍ.

Sareak eta lankidetzak


AIPAZ: Asociación Española de Investigadores para la Paz • ALDEE: Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek Elkartea • Alianza Latinoamericana de Estudios Críticos sobre Desarrollo • Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Eragileen Aliantza • ARDA: Agrupación de Investigación y Docencia de África • Asociación de Economía Crítica • Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (kide laguntzailea) • Espainiako GGKE-en Koordinakundea (kide laguntzailea) • EADI: European Association of Development Research and Training Institutes • Enlazando Alternativas: Red birregional Europa-América Latina y el Caribe • FIARE Banca Ética • GEA: Grupo de Estudios Africanos • Harresiak Apurtuz Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKE-en koordinakundea • IAFPE: International Association for Feminist Economist • Mosaiko • Programa Amanda • REAS: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea • REDIAL: Red Europea de Información y Documentación sobre América Latina • REEDES: Red Española de Estudios del Desarrollo • SEDIC: Sociedad Española de Documentación e Información Científica • SEM: Sociedad de Economía Mundial • SID: Sociedad Internacional para el Desarrollo • Tesela • WEA: World Economics Association • WIDE: Women in Development Europe.

Langile laguntzaileak

Eskerrak eman nahi dizkiegu, urtean zehar, modu batean edo bestean, hainbat jardueratan Hegoa Institutuaren lankide izan diren pertsona guztiei.


7. Hegoa Elkartearen txosten ekonomikoak

Hegoa Elkartearen 2015eko. Eurotan 2015/12/31



- Eusko Jaurlaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Euskal Fondoa
- Espainiako Gobernua
- Fondo propioak (kuotak, zerbitzuak...)
- Kutxabank. bbkren Gizarte-Ekintza
- UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako
- Beste ekarpen batzuk
- Finantza-interesak

2015eko ekitaldiari egotzitako sarrerak	1.170.897,24	%100,00
Eusko Jaurlaritza	709.713,08	%60,61
Gipuzkoako Foru Aldundia	150.579,88	%12,86
Euskal Fondoa	63.350,30	%5,41
Espainiako Gobernua	33.292,08	%2,84
Fondo propioak (kuotak, zerbitzuak...)	183.780,67	%15,70
Kutxabank. bbkren Gizarte-Ekintza	3.000,00	%0,26
UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako	20.000,00	%1,71
Beste ekarpen batzuk	4.671,21	%0,40
Finantza-interesak	2.510,02	%0,21



- Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)
- Langile guztien gastuak (11,68 lanaldi oso)
- Kalte-ordainak. Langileen murrizketa
- Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko
- Pertsonentzako laguntza. Master ofizialak eta NBEkoak
- Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)

2015eko ekitaldiari egotzitako gastuak	1.236.368,38	%100,00
Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)	339.543,32	%27,46
Langile guztien gastuak (11,68 lanaldi oso)	525.237,16	%42,48
Kalte-ordainak. Langileen murrizketa	92.623,88	%7,49
Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko	261.438,33	%21,15
Pertsonentzako laguntza. Master ofizialak eta NBEkoak	1.600,00	%0,13
Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)	15.925,69	%1,29

2015eko ekitaldiko emaitza (galderak) -65.471,14